



DISKOA

Askotariko doinuak eta sentimenduak



IBAI ARRIETA

Natali taldeko kideak.

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Musika estilo zehatz batera mugatu gabe, askotariko doinuen ukituak entzun daitezke Natali taldearen lehen diskoan: pop rock, rock-and-roll, hard rock, reggae, funk, soul, americana, balada...

Taldeko musikariak trebeak dira beren tresnekin, eta aipagarria da Natali Izagirre abeslariaren ahotsa eta kantatzeko modua, kemen eta grina handiarekin aritzen baita. Halaber, kantak ozen entzuten dira, soinu sendoa gauzatu baitute, indartsua, Andoaingo Garate estudioetan, teknikari eta produktore lanak egin dituen Kaki Arkarazoren laguntza estimagarriaz. Beste zenbait musikariren laguntza ere izan dute eta, besteak beste, Glaukoma taldeko Juantxo Arakama aritu da *Hitzak* kantan.

Hainbat musika estiloren doinupean, sentimenduz beteriko istorioak kontatzen dituzte: "Ez dut behar terapia, behar zaitut zutik. Hitz egin askok egiten dute baino esan oso gutxi. Basamortutik gabiltza zu eta ni hanka hutsik" (*Hitzak*), "Iparrorratzik gabe noraezean, zuregandik gerturatu eta urrundu nahiean" (*Iparrorratzik gabe*), "Nola aitortu hitz gutxitan hutsaren oihi isilena, nola? Eta nola ihes, nola apurtu katez loturik nauen bakardadea?" (*Berriz*), "Amesteko hegaka kateak hautsiko ditugula, piztu dela barneko argia, eta oihukatu munduari ez naiz zure esklabu. Eskuak batuz, indartuz, aldatuz eraikiko dugu, garena" (*Garena*).

Natali taldea duela bi urte sortu zen. Natali Izagirre usurbildarra, bi urtean Ameriketako Estatu Batuetan barrena



GARENA NATALI

AUTOEKOIZPENA, 2019

ibili ondoren, bere ideiak eta ezinegona azalertzeko eta sormena askatzeko, Ixak Arruti (Mendeku Itxua, Izeberg) gitarrista herrikidearekin elkartu, eta martxan jarri zuten proiektua. Horrela, bakoitzak bere ibilbidean ikasitakoa eta ikusitakoa uztartu, eta bien artean sortu dituzte kantak. Beren lehen fruitua izan da 2018ko otsailean kaleratu zuten *Iparrorratzik gabe* kanta.

Gorka Mendizabal zarauztarra (bateria), Andres Insua patagoniarra (baxua) eta Olaia Inziarte oronoztarra (teklatuak) elkartu dira haiekin, eta osatu dute Natali taldea. Denbora gutxian, eta lehen diskoarekin, oihartzuna izan dute, jendaurreko emanaldi sorta polita egin dute jadanik, eta gero eta ezagunagoak egiten ari dira. ●